



XIV ORDUEN HISTORIAN ATZERA BEGIRADA

XIV Orduetako mendi ibilaldiari buruzko gehigarria gaur HITZAren, ibilaldiaz gehiago ezagutzeko >I-IV

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2008-05-16**

VIURTEA 1.435.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

JOSE MARI GORROTXATEGI KONFITEROA ETA ARGAZKILARIA

«Gozogintzan betiko gauzeekin batera eboluzionatu egin dut»

TOLOSA Bihar udaletxean omenaldia jasoko du tolosarrak «bizitza osoan Tolosaren alde egindako lana dela eta»

ERAKUSKETA Gorrotxategik ateratako argazkien hautaketa ikusgai izango da Aranburun, ekainaren 10era arte <3-7



Jose Mari Gorrotxategi konfiteroa bere argazki erakusketako lan batzuen aurrean, Aranburu Jauregian. J.SAIZAR

Eskualdeko hainbat eragilek AAMren auzipetuei babesa erakutsi diete.

Leitzan eta Lizartzan kultur asteari hasiera emateko prest.

DISEINU GRAFIKO eta sormenean oinarritutako heziketa

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zirkulak



TITULAZIO OFIZIALAK

Nazioarteko lehiaketak
praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINTZA . PUBLIZITATEA .
ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA

WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

www.ceinpro.es
INFORMAZIOA 943 310 873

Heriz Pasealekua 95 • 20008 Donostia • Gipuzkoa • Txan 943 310 870



Z Zurea da hitza 

Atal honetan zuen keaxak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Bedaioko bi bizilagunen jaunartzeak

Pasa den igande honetan ospakizun bereziak izan ziren Bedaion, bertan bi gaztek (Agurne eta Enerito) jaunartzeak ospatu zituzten. On Joxe Agirre eta On Martin Zubillagak apaizek elizkizuna zuzendu zuten. Elizara Bedaiotar nahiko elkartuzen eta elizkizun polita eskeini ere. On Joxe Agirre Bedaioko ama birjinari idatziriko bertsoarekin eman zitzaion amaiera elizkizunari. Ondoren senideartekoek agurra eskeini zieten elizatarian. Zorionak.

Bedaio

Partaideek aipaturiko bi hirietako eskolapioen eskolak, ikasleak eta irakasleak ezagutzeaz gain, bisita kulturalak eta sozialak egin dituzte; hala nola, Granadako auzo pobre batean, agurren egoitza batean eta gorren zentro batean. Ekintza honen jatorria hobeto ulertzeko, gogoratu behar da Eskolapioen Andaluziako eta Euskal Herriko probintzi ohiek gaur egun Emaus probintzia osatzen dutela.

Hirukide ikastetxea.**Pintadak Anoetako Gaztetxean**

Anoetako Edurka Pabiloilan pintadak agertu dira bart gauean.

Anoetako Gaztetxea, hainbat musika talderen entsegu lokalak eta Txolarre Irratia biltzen dira Edurka Pabiloilan.

Pintadetan *Viva España*, *Viva el G.A.L.* eta *Hijos de puta* bezelakoak irakur daitezke.

Argazkiak bidaltzen dizkizuegu.

Anoetar bat.**Hirukide ikastetxeako Sevillan**

Maiatzaren 5etik 10era Hirukideko DBHko 2. mailako 77 ikasle eta sei arduradunek Andaluzian (Granadan eta Sevillan) egonaldia bat burutu dute. Lehen aldiz egin dugu hau eta elkartrukea izateko asmoa du. Hau da, datorren ikasturtean andaluziarrak Tolosara etortzea espero dugu.

**Printze-printzesak, mendizaleak eta Jose Mari****>> Kale kantoitok****Joxemi Saizar**

Maiatzean printze-printzesak ugalzten dira. Urteroko kontua. 8-9 urteko haurrek eliza katolikoarekin bizitza osorako duten kontratua berresten dute, horretarako bere familiek janzkeretan, oparietan eta otorduetan dirua gastatzen erreparorik izan gabe. Zenbatek beteko dute gero hartutako konpromisoa? Gutxik, seguru asko. Azkenaldi honetan Usabalek Santa Mariak baino parrokiano gehiago ditu. Beste erlijio batzuetan sinisten dugu orain.

Maiatzean mendizaleak ugalzten dira. Urte olinpikoetan. Etzi hiru mila lagun ibiliko gara Aralarren gora eta behera mingaina atereaz. Ea eguraldia ez den gehiegi aldrebesten! Agujetak, babak, nekea, izerdia, Minak eta minak, Ata izango dira ondorengo egunetako solasaldietan ugalduko diren hitzak.

Erronka egingo diet mendizale guzti horiei. San Pedro egunean Gipuzkoako 112 mendi puntugarriak igo nahi ditu Alpino Uzturre elkartek bere urrezko ezteiak direla eta. Erronka horretarako eskualdeko 112 mendizale elkartzeko gai izango al gara?

Maiatzean, bihar, onespene eta esker hitzak ugalduko dira. Jose Mari Gorrotxategiri eskainiak. Tolosarra. Eltze askotako saltseroa. Herriaren alde lan egindakoa, alor askotan. Bere jakinduria apaletik beti aholku, iritzi eta laguntza emateko pronto. Euskal Herriosoari unegozoak eskainia.

Omenaldiak ikusteko, bizitzeko eta gozatzeko garaian egin behar direla pentsatzen dutenetakoa naiz ni ere. Bejondeizula, Jose Mari! Eta segi ezazu horrela!

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)



Lizartzako Kultur Astearen Barriola eta Bengoetxea egongo dira beste pilotariekin batera, baina frontoitik kanpo. I.S.

Hilaren 19tik 25era Kultur Astea antolatu du «Udal alternatiboak»

Lizartza » Pilotaren inguruko hitzaldia, mendi irteera, herri bazkaria... aurkitzen dira egitarau oparoaren barnean.

ASIERIMAZ

Kultur Astea antolatu du «Lizartzako Udal alternatiboak» hilaren 19tik 25era. Bertan herritarrek parte har dezaten ekitaldi ugari antolatu dituzte. Haur, gazte eta helduen arreta deitzen duen egitaraua aurkeztu dute antolatzaileek. Hala, Kultur Astearen baitan, hilaren 25ean egingo den helduen dohaineko bazkarian izena emateko Tabernan aurkitzen dira zerrendak.

Bestalde, hilaren 19an eta 23an, Gunea aretoan pintura, marrazki... erakusketak egongo dira arratsaldeetan.

» EGITARAUA

Maiatzak 19, astelehena
■ **20:00.** Hitzaldia Gunean. AHT Gelditua! Elkarlana taldearen eskutik.

Maiatzak 20, asteartea
■ **20:00.** Gunean pilota mahai-ingurua: Bengoetxea, Barriola, Mendizabal, Asier Olaizola eta Mikel Olaetxea pilotariak eta Iñaki Elorza irratia esataria egongo dira hizlari bezala.

Maiatzak 21, asteazkena
■ **16:30.** Alondegian Porrotx. Ondoren txokolatada.
■ **20:00.** Gunean hitzaldia Jesus Martinezen, osasun hezitzailearen, eskutik. *Elikadura orekatua eta osasuntsua.*

Maiatzak 22, osteguna
■ **20:00.** Gunean film emanaldia:

Denali Alaskako mendia. Ipar Ameriketako altuena. Jon Goikoetxearen, *Boliren*, eskutik.

Maiatzak 23, ostirala
■ **20:00etan.** Txirrita plazan kantu poteoa.
■ **22:30ean.** Gunean Lain musika taldea.

Maiatzak 24, larunbata
■ **10:00etan.** Helduak Txirrita plazatik mendi martxa Goltzurko zelaira.
■ **10:30ean.** Haurrak Txirrita plazan elkartuko dira Goltzur zelaira joateko. Bertan jokuak eta hamaketak egingo dute.

Maiatzak 25, igandea
■ **11:00.** Elkartean hamaketakoa.
■ **12:30.** Otsolar dantza taldearen emanaldia.
■ **14:00.** Helduen bazkaria dohain. Izena emateko zerrendak tabernan jarri dituzte.
■ **18:00.** Herri kirolak lehia egongo da Lizartza eta Gazteluko taldeen artean.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. Telefona: 685 22 70 58.

Koadrilen Egunak jarriko du lehenengo jai giroa

Anoeta » Jaiak badatozen seinale, bihar 20 koadrila elkartuko dira hainbat ekitalditan; etzi Dantzari Txiki Eguna izango da.

ERREDAKZIOA

Txupinazoa datorren asteazkenean izango bada ere, asteburu honetan Anoeta herriko jaietan murgilduko da. Bihar Koadrilen Eguna izango da eta igandean Dantzari Txiki Eguna.

Pilota txapelketako finalak sal-

bu, biharko ekitaldi guztiak koadrilei zuzendutakoak izango dira. Txupinazoa Satorrak Arrastaka koadrilak botako du, iazko jokoan irabazleak. Horrez gain, kalejira, bazkaria eta afaria, koadrilen arteko jokoak, arratsaldeko kalejira Txortains taldearekin... Giro eder jarriko dute herrian. Guztira 20 koadrila eta 240 lagun biulduko dira ekitaldian.

Etzi ere izango da zer egin: baserriarren azoka, herri lasterketa, herri kirolak, eskualdeko dantzari txikien emanaldia eta arte erakusketak ikusteko aukera udletxean.

» ASTEBURU HONETAKO EGITARAUA

Maiatzak 17, bihar

Koadrilen Eguna

- **09:00.** XI. Eskuzko Pilota Herri Txapelketaren finalak.
- **12:00.** Koadrilen Eguneko txupinazoa eta kalejira.
- **14:30.** Koadrilen bazkaria frontoian.
- **17:00.** Koadrilen arteko jokoak plazan.
- **19:00.** Txortains taldearekin kalejira herrian zehar.
- **21:00.** Koadrilen afaria frontoian.
- **23:00.** DJ Bullen emanaldia plazan.

Maiatzak 18, etzi

Dantzari Txiki Eguna

- **10:00.** Baserriarren azoka plazan, Anoetako AHT Gelditua! Elkarlanak antolatutik.
- **11:00.** Plazatik abiatuta, herri lasterketa adin guztientzat.
- **12:00.** Herri kirolak plazan.
- **12:30-14:00 eta 18:30-20:30.** Erakusketak udaletxean: herriko artisten lanak, eskulanetako taldeak eginiko lanak eta festetako kartel lehiaketan aurkeztutako lanak.
- **17:00.** Villabona, Tolosa, Alegia, Irura eta Anoetako dantza taldeen emanaldia herriko plazan.



'Berria'-ren bosgarren urteurrena

TOLOSA » Berria-ren bosgarren urteurrena ospatu zuten herenegun. Bertan eskualdeko gizarte eragile ezberdinak elkartu ziren, *Luzatu bostekoa* izeneko ekitaldian. Berria egunkariaren ibilbidearen bideo bat ikusi zuten hasieran eta ondoren EKTren kontseilari delegatuak, Juan Mari Larrartek, Berria egunkaria euskarazko hutsunea betetzeko sortu zutela aipatu zuten, hasieran bitziko une gogorrek ahaztu gabe. I. TERRADILLOS



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



GURDI nekazaritza kooperatibak langileak behar ditu
Zarazuko eta Anoetako lantokiatarako.

Egun osoz edota egun erdiz, zeregin ezberdinetarako: denda, biltegia, banaketa.

Interesatuak harremanetan jarri maiatzaren 20a baino lehen GURDIrekin: 943 655 880



Politika, kultur eta kirol munduko jendeak bat egin dute AAMren aurkako auziaren inputatuekin. I. GARCIA

Hainbat eragileren babesa AAMren auzipetuei

Villabona » Politika, kultur eta kirol arloko eragileek eman dute babesa eta beraiek ere «epaituak sentitzen» direla esan dute.

IMANOL GARCIA

Eskualdeko hainbat politika, kultur eta kirol eragilek Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren (AAM) aurkako auzian inputatuta daudenei babesa eman zieten herenegun arratsaldean Villabonan egindako prentsaurrekoan.

Auzi horretan epaitu nahi dutena «Estatuen biolentzia eta errepresioaren salaketa eta euskal preso nahiz errepresaliatu guztiekiko elkartasuna dela» salatu zuten.

«Gu geu ere epaituak sentitzen gara», adierazi zuten, «elkartasunerako eta errepresioaren salaketarako hamaika ekimenen partaide izan garela eta aurrerantzean ere partaide izaten jarraitu nahi dugulako».

Prentsaurrekoan izan ziren, besteak beste: Maixel Arrieta Villabonako alkatea eta udal taldea, Arantxa Aburuza Adunako alkatea, Mikel Arrastoa Zizurkilgo hautetsi independentista, Amezketako ANV-EAEn udal taldea, Anoetako ANV-EAEn udal taldea, Juan Carlos Otero pilota egilea, Asier Izagirre eta Jon Goikoetxea mendizaleak, herriarteko txapelketaren Amezketako pilotariak eta Ibarra arraunlariak. Prentsaurrekoan izan ez zirenak baina

beraien atxikimendua eman zutenak: Jon Altuna Eibarko jokalaria, Gari Uranga Realeko jokalaria, Jon Iraola aktorea, Asier Unsain trikitilari eta aktorea, Haritz Saez pilotaria eta Juan Manuel Erasun, Andoni Egia, Andoni Goikoetxea eta Joxe Gabirondo segelariak.

Beste ekitaldiak

Aste honetako ekitaldiekin jarraituz, gaur auto karabana antolatuta dute, Leibitik 19:30ean aterako dena. Bestalde, bihar Bilbon *Euskal Herriak askatasuna behar du* lelopean egingo den manifestazio nazionalerako deialdia luzatu zuten. Autobusak antolatu dituzte Villabonatik (Iratzarren eman daiteke izena) eta Ibaratik (ohiko lekuan eman daiteke izena).

IV. Kirol Astea antolatu dute Alegian

ERREDAKZIOA

Alegiako Kirol Batzordeak antolatuta, hilaren 20tik 29ra IV. Kirol Astea egingo dute. Ikus-entzunezkoak eta kirolari buruzko hitzaldiak izango dira, baina ospakizunerako lekurik ere izango da.

Hilaren 24ko eguna izango da bereziarena. Bertan hainbat ekitaldi egingo dituzte (saskibaloitxapelketa, gynkana eta pilota torneo) eta gauerako denboraldi amaierako festa antolatu dute.

» DATORREN ASTEKO EGITARUA

Maiatzak 20, asteartea

■ 19:00. Proiekzioa: Jose Ramon Agirrerren *Aire-airean*.

Maiatzak 21, asteazkena

■ 19:00. Luis Mari Zulaikaren *Eskola-kirola baliabide hezitzaile gisa* hitzaldia.

Maiatzak 22, osteguna

■ 19:30. Iñaki Arratibelen *Lehen sorospenak eta Lesioak nola tratatu* gaien inguruko hitzaldia.

Maiatzak 24, larunbata

■ 09:00. Saskibaloitxapelketa: Basket 3-3ren aurka Larraitx auzoko plazan.

■ 11:00. Gynkana herriko plazan.

■ 16:00. Udaberriko pilota torneo.

■ 21:00. Denboraldi amaierako festa. Zahagiardoa sagardoarekin herriko plazan.

Maiatzak 25, igandea

■ 08:30. Mendi irteera Aizkorria.

2. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa, finalaurretan

ERREDAKZIOA

2. Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren bigarren eta azkeneko finalaurrekoa egingo dute gaur. Adunako Asvinenea aretoan izango da, 22:30ean. Eskualdeko talde bat, Suyanema, eta tolosar batek parte hartzen duen Autoeskuela taldeek parte hartuko dute bertan.

Suyanema talde gazteluarrak *Orden cotidiano* lanarekin lehiatu-

ko da. Autoeskuela taldean Kristina Roperro tolosarra ariko da eta *Ipokresia* lana antzetzuko dute. Beste taldeak Irri Makila *La Madre* lanarekin eta Escapada en solitario *En el aire* lanarekin izango dira.

Antzezlanak tartekatze, modalitate ezberdineko dantza taldeak ikusteko aukera izango da: afrikarra, garaikidea...

Tolosako Udala

XIV orduekin

E **Elkarrizketa**

JOSE MARI GORROTXATEGI ▶ Konfiteroa eta argazkilaria

Omenaldia » Bere bizitzan zehar Tolosaren alde egindako lana dela eta, Udalak Jose Mari Gorrotxategi omenduko du bihar udaletxean.

JOXEMI SAIZAR

Omenaldia egingo dio bihar Tolosako Udalak, aho batez erabakita, Jose Mari Gorrotxategi Pikasarriri (Tolosa 1929). 11:00etan izango da udal batzar aretoa. Lanbidez konfiteroa izan da bizitza osoan zehar eta beste hainbat alor eta zalelasun ere jorratu ditu: zinegotzi, argazkilaria, txistulari, dantzari... Tolosaren enbaxadore izan dela diote batzuk. Omenaldiarekin batera, bere bizitzan zehar ateratako argazkien bildumarekin erakusketak egingo du Aranburu Jauregian.

Noiz hasi zinen argazkiak ateratzen?

14 urterekin, aitak oparitutako Zeiss Ikon markako kamara aleman batekin. Distantziak neurtzeko pausoak ematen genituen eta patrikan apunte batzuk eramaten genituen eguzkia, itzala edo euriarrekin argazkia nola atera jakiteko. Gero flaxa atera zenean sekulakoa izan zen. Orduan beldur handia zegoen kamararekin ibiltzeko, ez orain bezala. Eta argazki gutxi ateratzen ziren, familiakoak eta horrela bakarrik.

Eta gehixeago ateratzen noiz hasi zinen?

20 urterekin. Beti pertsonen eman diet lehentasuna eta gai bat bideoa balitz bezala hartu dut. Adibidez, azoka hartzen badut, ez dut argazki bakarrik ateratzen, baizik eta azokaren alde guztiak. Edo uholdeen gaian urez gain, giza aspektua ere jorratu dut.

Norbaitekin ikasi al zenuen?

Cadaquesen ikastaro txiki bat egin nuen Salvador Allenderen argazkilaria ofizialarekin. Maisu ona zen. Bere sistema gustatzen zitzaidan: behinere ez zizun esaten argazkia nola atera, herriko bizitza ateratzeko esaten zigun eta gero kritika gogorra egiten zigun. 30 urte baino gehiago pasa dira eta orain sistema hori ari dajartzen.

Argazki asko ikusi duzu. Zer da hori?

Bai. Beti esan izan didate ez dagoen tokian argazkia ikusi dudala. Gaitasun bat da.

Sari asko jaso al duzu?

Lau bat, horietako bat nazioarte mailakoa, Donostian, kirol gaitzat hartuta. Kontxan belaontzi txikien Munduko Txapelketa zen. Lanbro pixka bat zegoen. Kaitik atera zen belaontzi handi bat atera nuen eta gero zerumugan txalupa pila bat, zortzi disparto segidan, bata bestearen gainean, desenfoketxiki

«Gozogintzan, betikoarekin batera, eboluzionatu egin dut»



JOXEMI SAIZAR

batekin. Beste sariak ONCEkoa (Pakistango itsu bat aurretik neska koxkor bat duela), perretxikoetako (bi irudi batuz, perretxikoak Orioko plazan eta eguzkia Leaburun atera nituen) eta argazkilaria elkarteoa (aintzineko Kursaal inolarrereko lanbroan). Lehiaketa gehiagotara ez naiz aurkeztu.

Teknikak eragin handia dauka argazkian?

Bai, eta arteak ere bai. Biak ikusi behar dira. Aurreratu egin behar duzu pixka bat. Tenika eta artea uztartu. Oraingo kamara digitaletan ezin da hori egin. Orduan bai, automatikoa desblokeatu eta argazkiak bata bestearen gainean

ateratzea bazegoen. Nire argazkia %95ean ez da digitala, duela urtebete hasi nintzelako kamara digitaletarekin.

Zezenen gaia ere jorratu duzu.

Bai, zaletasun handia izan dut. Oso argazki onak ditut. Teknika pertsonala erabili dut beti: desenfokatu, abiadura oso motela jarri eta gauza arraroak egin. Geroztik ikusi dut hori hasi direla egiten beste batzuk. Zezen bat hondar gainean, hilda, dena odolatan, zezena beltza, odola gorria... inposatu egiten du.

Kolorea ala zuri-beltza?

Zuri-beltza ondo eginda kategoria da. Indar handiagoa dute argazki

batzuk zuri-beltzean, baina beste batzuk politagoak dira koloretan. Oteizarenak adibidez bietara jarri ditut, ikurrina koloretan ikusteko. **Momentuak badu bere garrantzia.**

Bai. Inauerietan ezin nuen atera lanagatik, baina sokamuturrara aitak uzten zidan eta hor ibiltzen nintzen beti. Gertatuko dena lehenagotik ikusten dut. Ez dakien bat pasa eta gero konturatzen da. Inportantea da momentuan egotea eta jakitea. Liburu batean irakurri nuen lehendabizi disparatu eta geropentsatu behar dela nola atera argazkia. Bestela ezin da, argazki asko galtzen da.

Argazkiren bat aukeratzeko-tan?

Argazki aldetik bi jarriko nituzte, biak Inauteritakoak: bata Txapelautdi txarangako musikari bat udaletxeko arkupeetan eta zezena aurrean berari zuzen begira, eta bestea txaranga jotzen elurretan eta jendea aurretik saltoka. Gizaki aldetik begirata, Jose Miguel Barrantiaran argazki bat aukeratu nuke. 1980ko Kilometroetan jendeak argazkiak ateratzeko kartoi parregarri horiek jarri zituzten eta berak aurpegia jarri zuen irribarrez. Gizon serioa eta zorrotza zen eta orain arte ez dut nahi izan erakutsi argazki hori, errespetoagatik, baina denbora asko pasa da eta, errespeto osoz, erakusteko momentua iritsi dela iruditzen zait. Gero nahigabea eman zion oinez zihola eta Gurutze Gorriak kamilan eramaten atera nion beste argazki bat. Sentimendu aldetik bi argazki ditut, orain arte erakutsi gabeak. Hemen ez nituen errebelatu orduan polizia kontrolatzen zituelako eta hondatu egin zirela esaten zituelako. Frantziara eramane nituen errebelatzeri. Ikurrina jarri zutenean Santa Mariako gurutzean, goardia zibilak ez ziren iristen eta pertika batekin su ematen ikusten dira. Historia da hori. Eta bestean goardia zibilak aizkorarekin ikurrina hausten ikusten dira. Ibarrako Sebas Goikoetxearen hiletan gorputza elizan sartzen eta kanposantura eramaten herri osoa atzetik doala atera nituen argazkiak. Arriskatu egiten zenuen garai hartan, baina argazki horiek historia egiten dute.

Beste argazkilariekin harremanik izan al duzu?

Bai, Sigfrido Koch eta Alberto Schommerrekin adibidez, nazioarte mailakoak, harreman ona izan nuen. Alberto Fernandez Ibarburerekin, argazkilaria elkarteoa. Egiguren anaia zumaiarrekin ere bai.

Eta Tolosako argazkilaria profesionalekin?

Jesus Elosegi ezagutu nuen asko. Hiru argazki oparitu zizkidan: mikelate baten lurperatzea plaza Zarran, Orixe Orexako baserri batean eta Belatan zegoen Perez de Raxilen plaka. Arrillaga ere ezagutu nuen. Gazte denborakoak horiek dira. Jesus Elosegik beste gauza bat zuen: herrimina. Iñaki Linazasorok ere bazuen hori.

Zergatik uste duzu egiten dizutela omenaldia?

Beraiegi galdetu beharko diezu. Oso gazte hasi nintzen parrokan, Accion Catolica, gazte mugimen-

duan, Oargin lehendabiziko lehendakaria izan nintzen... Dantzari izan nintzen. Lehen San Juanen aurrean ez zen dantzatzin. Arratsaldean aurrekoa egiten genuen (aurreku eta atzesku bezala dantzatu dut, lehiaketa eginda).

Argazkian beti pertsonen eman diet lehentasuna eta gai bat bideoa balitz bezala hartu dut

Beti esan izan didate ez dagoen tokian argazkia ikusi dudala, hori gaitasun bat da

Estatuko legeekin batera lurraldeetako erakunde tradizionalak ere kontuan hartzea eskatu genuen

1947an dantzatu genuen lehen aldiz santuaren aurrean. Txistulari ez zen eta Bernad Bandako zuzendariak esan zigun hurrengo urtean txistularirik ez bazegoen bandako musikoak jarriko zizkigula. Ez zen behar izan, konpondu zen.

Zinegotzi ere izan ziren.

1961-67 epean, bi legealdi, garai gorrotan. Udalak dendarioi gaizki tratatzen gintuen eta ordezkariak behar genituela pentsatu eta sindikatuen aldetik atera nintzen. Alderdien menpe daude orain zinegotziak. Lehen udal ikastola orduan sortu genuen. Teniente alkate bezala Francoren gobernuari eskatu genion 1937ko dekretua kentzea, estatuko legeekin batera lurralde bakoitzeko erakunde tradizionalak ere kontuan izatea. Prentsan asko atera zen. Hondarribiko Udala berehala erantsi zen gure eskaerara. Bestalde, kale garbitzaileei maila igotzea eskatu nuen, bajuena kobratzen zutelako. Madrilen eskatu eta lortu genuen, horregatik maite ninduten hainbeste.

Lurremandikoko kontseiluan urte asko egin duzu.

Bertako jendearen etxea izaten defenditu dut beti. Ukitu legalak emateko zinegotziak badaude. Herritar bezala han dauden goxotasuna defendatzen dut.

Zer izan da Tolosa zuretzat?

Nire herria, onerako eta txarrerako. Lehen ez ginen kanpora ateratzen, urtean behin edo bi aldiz hondartzara. Gure jostailuak ximitorion, elizako paretaren kontra, pilotan jostatzea edo Zerkausiko hesian harrapaketatzen, kaniketa, txorromorron, pilotan, Letxu kalean futboleko Txapararren sagardotegitik udal txekoko arkupeetara trapuzko baloiarekin. Kotxerik ez ia, Berastegiko eta Beteluko autobusa eta Ramontxo Irazusta Txaramako papelerako jabea autoz Donostiara pasatzen ziren. Horti aurrerailbre.

GAZTE GARAIAK NOLAKOAK IZAN ZIREN?

Dantzari izan nintzen aurrean, gero txistulari (Guillermo Lizasorekin eta Miguel Martinez de Lezearekin ikasi nuen), Oargin... Herriko festetara joaten ginen, baina ez urrutira, urrutiana Pásus-eneara. Eta zezenetara ere bai, afizio handia izan dut beti. Ausarta nintzen sokamuturrean zezenaren aurrean eta jauzi handiak egiten nituen, arina nintzen.

Herriko festak gustukoak dituzu.

Bai. Karnabalerora ez naiz izan nire ofizioagatik. Sanjuanzalea bai. Elizaren aldetik Inauterien kontra aritu ziren, 50. hamarkadan kendu nahi izan zuten, baina ez zuten lortu. Eskolara joaten ginen Karnabalean.

Nola hasi zinen gozotegi lanetan?

Eskolapietan bukatu nuen 14 urterekin eta obradorera, 1943an. Pastelak egiteko ez genuen azukrerik, ez irinik... jai genuen pastel aldetik. Baina txokolatero ginen eta bakoitzari bere makinariaren kapazidatearen arabera kupo bat ematen zigun gobernauk: hainbeste kakao, azukre eta irin txokolata egiteko. Ofizio hortan hasi eta argizaria ere egiten genuen. 18-20 urterekin Donostiara Tea Room Garibayra joan nintzen ikastera, hango pasteleroa nire aitaren ikasle izan zelako. Erregina eta handi jendea joaten zen hara, kalitatekoa zen. Gaur egun txokolata industria handiek jan dute, orain Espai-

nia osokoa lau edo bost fabrika artean egiten dute. Orain manteka kakao erosten diote enpresa bati, kakao azala kenduta eta tostatuta inportatzen dute fabrikante handiek. Orduan ez, prozesu osoa egiten genuen bertan. Tarta eta turroiak ere beti egiten ziren. Betiko gauzekin batera mentalitatea eboluzionatu egin dut eta hortan oso ondo ibili naiz.

Zein izan da lortu duzun produkturik onena?

Xaxua. Beti maitatu dut. Tolosa hiriburua izan zen garaiko postrea da. Bergarako relleñoek Real Seminario zegoenean hartu zuten fama, Azkoitiko jauntxoekin, Elgoibarreko Uriguen balnearioetara

etortzen zen Madrilgo eta kanpoko jendeak eman zuen ezagutera. Xaxua antzinako produktu noblea da eta orain ere hala da. Ez dugu formula aldatu. Gero turroi berriak sortu nituen: mandarinkoak, kanelakoa eta horrelako berrikun-

Herritar bezala, lurremandikoko daudenen goxotasuna defendatu dut bertako kontseiluan

Xaxua antzinako produktu noblea da eta orain ere hala da; ez dugu formula aldatu

Barandiaranek esan zidan gozogintza liburua idatzi behar nuela, ezer ez zegoelako idatzita



J.SAIZAR

450 argazki paneletan gaika

Erakusketa » Argazki asko atera ditu Gorrotxategik bizitzan zehar; hautaketa ikusteko aukera izango da Aranburu Jauregian.

J.SAIZAR

Udalak hala eskatuta, bere bizitzan zehar egindako milaka argazki arteko hautaketa bat egin du Jose Mari Gorrotxategik eta bihurtik (inaugurazioa omenaldiaren ondoren izango da, eguerdian) ekainaren 10a bitarte Aran-

buru Jauregian egongo da ikusgai. 450 argazki inguru dira guztira, paneletan gaika jarrita: sanjoanak, Inauteriak, Lurremandi, uholdeak, Jorge Oteiza, Jose Miguel Barandiaran, zezenak, Petrikilo... Lau argazki sarrituak aparte jarri ditu. «Kalitate nahi ona dute eta banan bana txukundu dituzte», dio Gorrotxategik.

Adibidez, Ixaka Lopez-Mendizabalaren gorpua maskarila egin zioteneko argazkiak jarri ditu erakusketan. «Familiak maskarila egin nahi zion, pertsonaia garrantzitsuei bezala, baina inor ez zen

ausartzen. Nestor Basterretxearekin harremana zuten eta haren bidez Jorge Oteizarekin hitz egin eta ausartu zen, nahiz eta beinere ez egin horrelakorik. Argazkiak ateratzeko deitu zidaten eta joan nintzen. Prozesu osoa atera nuen: maskarila gogortzen, lau zatitan... Egun hartan ume koskor bat ere hil zen eta han zegoen kanposantuan parbuloren kaxa. Jakin nahi nuke zein zen. Lopez-Mendizabalak hamalau hilabete falta zituen 100 urte betetzeko eta umea berri, oso txikia zen. Kontrastea handia da», dio Gorrotxategik.

tzak. Garrantzia izan dute hemen eta kanpoan. Eguberri batzuetan, bixigu gutxi zegoen arrandegietan eta esan nien ez zela faltako afarirako. Hojaldrezko bixigua egin nuen eta Eguberriko ohitura bezala jarraitzen dute erosten orain ere. Beharren arabera irudimena garatu egin behar da.

Zure jakinduria liburuetan jaso duzu.

On Jose Migel Barandiaranek museo ikustera etorri eta esan zidan asko nekiera eta liburua atera behar nuela, obligazioa nuela, gai honetaz ezer ez zegoelako idatzita. Askotan eginda, liburu bat ez da egun batetik bestera egiten. *Historia de la confitería vasca* liburua kaleratu nuen bi auletan eta etnografia aldetik oso txukuna atera zen. Barandiaranek euskal kulturari ekarpen handia zela eta txalo guztiak merezi zituela esan zuen. Aholku bat eman zidan Barandiaranek: «Egia dena egi bezala jarri, eta zalantza duzuna zalantza bezala, bestela gezurra jartzen baduzu zure liburua ez du balioko». Arrazoi du. Gero *Babarruanren historia* liburua idatzi dut. Baseerrietan babarruna egin, guk erosi eta saldu egiten genuen. Bi liburu horiez gain, kolaborazio eta artikulu asko idatzi ditut.

Tolosaren enbaxadorea zarela esan du.

Museora jende asko etortzen da, mundu osotik, Japoniatik enpresa handietakoak. Liburu bat egin zuten han eta nire iritzia eskatu zidaten. Orain dela gutxi gozoari buruzko tesi doktora egiten ari den ikerle bat egon da gurekin 15 egunez lanean. Nire lanbidearen bitartez Tolosako enbaxadorea izan naiz, bai.

Azkenean badakigu zergatik den omenaldia.

Gauza horiek ez ditut kontatu, ez ditut liburu batean idatzi. Batzuetan agertu da prentsan, baina norbait etortzen den bakoitzean airea-ritzen aritzen banaiz... Ez da nire estiloa.



16°
10°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	17°
HOTZENA	10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Euri eta eguzki artean

ERREDAKZIOA

Eguzkiak eta euriak ez zuten galduta izan nahi San Isidro Eguneko ekitaldiak. Hainbat herritan egon zen zer egin eta zer ikusi eta zer uan zehar igarotzen ziren lainoek noizean behin zaparrada batzuk utzi zituzten. Beste urtetan baino zertxobait jende gutxiago izan zen herri kirolen erakustaldiak ikusten.

Amasa eta Asteasun egin ziren harri-mugitzearen probak. Amasan plazan egin zuten Errenteriatik etorritako bi idi-parek. Asteasun, idi pareak aurrez aurre Olarreaga-Goikoa baserriko behorra

izan zuten eta honek baino plaza gehiago egin zituzten. Zizurkilaren aizkolariak eta harri-jasotzaileak izan ziren protagonistak.

Berastegin, besteak beste, eskualdeko prozesio bakarra egin zen, Iruran Kultur Asteko ekital-

diak ere izan ziren eta Anoetan hitzaldia izan zuten karobiei buruz. Aipatutako herri guztietan (Anoetan izan ezik, larunbatean egin baitzuten afora) eta Alkizan ere mahai inguruan elkartu ziren baserri-tarren eguna ospatu asmoz.



Amasako idi-demaren une bat. I. GARCIA



Berastegin prozesioa egin zuten udaletxetik elizara. NAIARA GARZIA



Asteasuko Olarreaga-Goikoa baserriko behorra ahaleginetan. I. GARCIA



Bazkariak izan ziren, Zizurkilgo Plaza etxeberrri jatetxeko kasu. I. GARCIA



Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldia Iruran. A. IMAZ

A Agurrak



Zorionak!

Maialen (Berrobi). Zorionak! Zazpi muxu potolo bihotz-bihotzez maite zaitut.

hazi

nahi duten pertsonentzat

Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte parte-hartzeari buruzko hiru argitalpen eskaintzen dizkizu

Etxean edo zure elkartean doan jaso nahi badituzu, indorengi bidali erabil ditzakezu irenia erabeko. Maitatzen, ekarpen eta uztaitzen jaurki dituzu.

Izena eman

Deitu: 943 25 10 05 | Idatzi: partehartu@baketik.org | Sarritu: www.baketik.org

Parte hartzen pertsona eta gizarte moduan hazten gara



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Laguntza:


Aholkularia:



kultura politik berria
programa de politikak kulturales de Euzko Foruak

XIV Orduak

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info



MENDIZALEEN HITZORDUA ARALARKO PARAJEETAN

TOLOSALDEA-LEITZALDEA 3.000 lagun inguruk hartuko dute parte etzi, igandea, Aralarko Adiskideak elkarteak antolatzen duen XIV Orduetan; lau urtez behin Olinpiar Jokoekin batera izaten den martxaren 14. edizioa da aurtengoa

14 PAUSOREN XUXURLA

XIV ordudak XIV Orduen hamalagarren martxa da etzikoa. Meza kontu gutxi izango da, baina mendizaleek, lehenaldi hartako poe bera dute.

Gaur, gure inguruan gurekin diren atona-amonak mandarantzen ari zireneko garaiari, beren eskuak leian itasle gazte talde bat gazte ameslariak eta hazi gogo ikaragarri zutenak. Haien ameslari, Anlar mendietan kin lotuak zauden, eta mendi honen inguruan, senak emandako eginkizun eta asmo ugari ziren haien biziopuz.

Gazteak, ametsak eta gogokak Aurreko mendeko lehen laurden inguruan-edo, Tolosa eta Tolosa inguruko ikasle talde batek, Aralar Anlar Adiskideak elkartea sortzeko erabakia hartu zuten. Gazte hauek, Anlar inguruan ibiltzeko zuten gizona, geroztik da handiago

zuen. Aralar tartean zela, asmo asko sortzen baitzituzten. Garai hartan, ez zuten gaurko medietatik, ordea. Bizkarrean zorro besteak ez zutela, mendiratzan ziren; eta gaur inguratuko, oihai bat besterik ez zen denda jartzen zuten, emakul moduan. Garai hartako kontuek zerikusitatu zuten gaurkoekin, eta herriak eta mendiak ez zuden elkarrengandik gaur adina konunitatirik. Ibilbide luze hauek, eta mendian eman beharrekiko gausu konmunitateak, Anlarren geroztik goiztatu eta ondutuz geroztik gazte talde honi. Horrela, Igaratzen atepoan aginteko ideia izan, eta hasieratik bostan ames hutsa zen haur, aurrera eman zuten.

Mugan mikelotea Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru aldundiek, XVIII. mendean amiarren hasita, euren mende egongo ziren eta denek antzeko eginkizunak izango zituzten gorpuz amatsak eratu zituzten. Gorpuz amatsa haren eginkizunak hauek ziren: ordena publikoari

Aralar Adiskideen elkartea Atepea sortu eta urte batera sortu zuten. Haren inguruan ibiltzeko, bazkide izateko haru eta, 1928an elkartea sortu zuten.

«Montañeros vetustos» Aralar adiskideak, tenak berak adierazten duen moduan, Aralar mendietan oso lotuak zauden. Baina Anlarreko arduratzaiek, gaur, inguruko beste mendiak kontu hartu nahi zituzten, baita, besteak beste, zereginak antolatzen ere. Honen ondorioz, «Montañeros vetustos» izenarekin ezaguna zen beste talde bat sortu zen. Bertako bide gehienak, besterik ezaz ere, Aralar adiskideen taldeak ziren. Talde berri hau Pirinioetan, Europako Mendietan... Aralaretik kanpo, makina bat ekintza antolatu zituzten. Geroztik, Tolosako eskalari alpinistak sortu zuten; baita, Tolosako Berazubi kirol estadios eraikitzen parte hartu ere.

Aralar, artzainen kabi Ametzako eta Ordizako Herri Batasunak, antzitzak baliatu zuten Aralar eta Aralariko ingururua oso ustiapenerako eta arantzazarako. 1199an, Gipuzkoako Gaztelako Koroaren parte izateko pusa zenenan, mendi eta inguru hauek ere, Gaztelako Erreinuarenak izango ziren; zirela, 1400era arte, Garai honetan, Gaztelako Erriak IIIak, Ametzako Juan Jaunaren esku utzi ziren herriak. Baina Ametzako eta Ordizako He-

Mendizaleak ez du nahasbiderik Igaratzako bidegurutzetik aurrera

Igaratza Bere garaiari, Aralar adiskideek bideguru utziaren jarraituko harritzko seinaleak bidea ageritzen dio mendizaleari.



Baterako eta besterako bideak elkartzen diren parajearen irudia. 1972



Orientazio mahalaaren bukatzea Mikel Lizarraga leizarrak egina zuen. 1972

XIV Orduen 14. ibilaldia 1925ean izan zen lehen ibilaldia, hartatik kontu Franko izan da, eta baita bizitzeko ohinak aldatu ere. 1925eko ekainaren 6an zen. Goizean goiz jaitki, eta gaur 14 minutik, goizaldeko hiruretako meza entzun zuten Tolosako Santa Maria elizan. Jaleroiko ospakizun honen ondoren hartu zuten mendiko bidea. Haien asmoa, lagun artean ibilalditxoak egitea zen. Aralarren majo gogoz, mendian ibiltzea.

Ohitura handia zuten gaur hartan bertatik bestera oinez ibiltzeko. Tolosatik Bilbora, Estibalizera nahiz Iruera ibilaldi luzeak egiten zituzten. Haien zantzak, noiz behinako ibilaldi preziatuak eta bereziak ziren haiek. Eta esan nahi da, gaur egun inguru edota herri guztiak dirugala eskura eta ikusgai baita orduan, ez. Gaur, Igaratzen joan nahi hauek, bide luze kopurua asko aldatu zen, 111 lagun abiatu ziren. Hortik aurrera kopurua hazten joan da, eta etzarako 3.000 lagun inguru izatea espero da Aralar inguruetan. Meza kontu gutxi izango da igandean, baina hasiera hartuko poe etzarako berak abiatuko dira mendizaleak.

genulkeen moduan egin. Bidean gorarari zirela, lasi edertean paratuko egin, eta gaur detean mahai inguruan oerita bazkaldutako. Bertako ondoren, besterako bidean zirela, beste lagun batzuk bidera atera zitzaizkien, eta Ametzakoan zirela, Aiar legaz ere, lasi oerita egin zuten. Azkenean, gauko hauek ongi pasata iritsi ziren berriro ere Tolosara. Beste araban egin zuten zuzen guztiak. Gaur, penintsela da txango edota ibilaldi bat modu horretan antolatzen. Batek, lagun talde bat horiegi behar duela burutzen, baina ez besterik. Kontak, beraz, galan aldatu dira.

Ian zen beste urteetan saioak ere. Hurrengo urtean 13 lagun joan ziren aurreko urteko bide beragierako asmoz. Baita egin ere. Hurrengo urteetan, ez zen, ordea, ibilaldirik izan. Handik 17 urtera ekin zuten berriro ere Aralarren ibilaldi hura egiteari. Odoan, partide kopurua asko aldatu zen, 111 lagun abiatu ziren. Hortik aurrera kopurua hazten joan da, eta etzarako 3.000 lagun inguru izatea espero da Aralar inguruetan. Meza kontu gutxi izango da igandean, baina hasiera hartuko poe etzarako berak abiatuko dira mendizaleak.

Kutxa zaharreko hautsak iruditzen

ABALARCO ADISKIDEAK Mendehasieran, mendizale gazteek, bizkarrean zutera eta oihai xume bat besterik ez zuten gaur inguratuko. Artzainak, berrik, ardia eta bakardada zituen lagun. Autok ere egokitu egin behar ziren mendirako. Korta horiek izan geroztik, Igaratzako atepoaren lehen harriz jartzearen batera. Hasieran atepoetara zena, eginkizunak bihurtu zen, eta Aralariko inguruetako mendizale eta artzainek, aitzakia gutxi behar zuten Igaratzen lagun arta ibiltzeko. 1925. urtean eginiko txango hark ere, bila-kaera izan du, gaur egun, emakulak, ibilalditako zera eman ahal du, hirz.



Gustuko bidean aldatu egin

Ibarra Udal

Menu bereziak
Ogitarteak
Plater konbinatuak

Txindoki jatetxea

Tel. 940 40 54 97
940 40 54 97

Ordezkatu hutsa, 0 €/100000



urteurrena **Aizal Udal Euskaltzain**

Animo mendizaleak!

Mendiaz gozatzeko eta Aralar bizitzeko modua aldatu da azken hamarkada hauetan. Hala ere, mendian ibiltzeko grina bizi-bizi da euskaldunen artean. Horren erakusgarri da Aralar inguruetan 1925etik ospatzen den XIV orduetako ibilaldia. Urtetik urtera partaide kopuruak gora egin du, eta ez dirudi hurrengo ibilaldietan mendizaleen parte hartzeko gogoak atzera egingo duenik.

«Mendian lasai ibili behar da, gu beti presaka ibili gara, gaurko marka bihar hobetu nahian»

MANUEL ETA ENRIKE GOIKOETXEAUNDIA » Zerrategiko nagusiak

Lizartza » Inguruko martxa gehienak eginak dituzte, eta etzi, mendizale iaio beteranoenek ere ez dute zitara huts egingo.

Mendiari lotua bizi omen da euskalduna, eta ez da arrazoi faltarik. Baseriari edota basogintzari lotuak bizi izan direlako batzuk, mendizale porrokatuak ziren kaletarrak zirelako besteak; baina mendia maiteatutakoak denak. Bizia mendian eman dute Manuel (Lizartza, 1938) eta Enrike (Lizartza, 1939) Goikoetxeaundia anaiek ere, eta XIV orduetako izango dira mendizale beteranoen artean.

Noiztik mendian?

Gu ibiltzen gara asko. Orain ez gara lehen adina ibiltzen, baina, oraindik ere, asko. Euskal Herriko mendi guztietan ibiliak gara, eta baita Errioxa eta Logroño aldean ere. Esaterako, Errioxan, urtero izaten diren, Ezkarai mendietako martxa guztiak egin ditugu, uste dut, ha-



Manuel eta Enrike Goikoetxeaundia, ezkerretik hasita bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren. A. OTERMIN

mabi martxa direla. Aurten hamaugarren aldiz egin ditugu. Zorte handia dugu horretan. Eta hemen ere, gure denboran, ibilaldi denetan ibiliak gara. Hiru Handiak (Gorbeia, Anboto eta Aizkorri) ere bitan eginak ditugu. XIV orduak ere bostpasei aldiz. Gainera, lehenengo urtean egin ez banuen ere, maiatzaren lehenean edota pazko bigarrean, urtero-urtero egin dugu XIV orduetako ibilbide bera.

Eta oso ongi eta gustura beti. Aurten ez, aurten Berastegikoa bakarrik egin dugu.

Umetan ere mendialdera joaten al zineten?

Ez, umetan ez zegoen horrelakorik egiterik. Umetan, segan, belarrean, garotan, egurra mozten, ... nahiko lan izaten genuen. Mendian txangoak egiteko kontuak, gure industria sortu ondorenekoak dira. Gazte ginela (20-30 urtere-

kin) ez zegoen mendira joaterik, nahi izanda ere, utzi ez.

XIV orduak prestatzeko asmoarekin, zer egin duzue?

Berastegiko martxa egin genuen. Hortik aurrera, nire alaba gurekin ateratzekoa da-eta, hari lagunduz, gure kasa ibili gara. Gorrititik bueltan behin, eta beste behin Tolosatik atera, San Migeleraingo joan eta Amezketarako bidea egin genuen. Amezketan ginela, taxia hartu, eta etxera.

Menditik zer da gehien gustatzen zaizuena?

Menditik, dena. Gainera, beti menditik bizi izan gara gu, eta hola-hola, Euska Herrian ezagutzen ez dugun mendirik, gutxi izango da. Pentsa, orain ere, egurretan, Aralarren, Ataunen, Igaratzan eta Urbasan ari gara. Nahi ez dugula ere, beti mendian; ez dugu kalean ibiltzerik. Esaterako, gaur Ataunera joan behar dut Infanta-doko Dukera. Ataundik goiko gainera zazpi bat kilometro dira, eta ez dut kotxerik erabiltzen; dena, aldapan gora, oinez egingo dut.

Eta gustatzen ez zaizun zer ikusten duzu mendian?

Noiz edo noiz tristezia ederra jaso dut mendian. Lehengo udan, Aizkorri goi eta handik aurrera nindola, bertan zeuden altuerak txikituta eta botata zeuden. Kontu hori mendi batean baino gehiagotan ikus daiteke. Eta niri, ikaragarri gustatzen zait, mendi batera igo ondoren, bertan, mendiaren altuerara eta denborak orri batean biltzea. Eta nik uste, mendian txikizio hori

Gure lanbidea dela eta, nahi ez dugula ere, beti mendian ibili gara; ez dugu kalean ibiltzerik

egiten duena, ez dela ongi ari. Gauzak txikitzen erraza da, baina ohartu behar gara, mendiak markatzea asko kostatuko lana dela.

Mendizale moduan egin duzuen ezer aldatuko zenukete?

Bai. Izan ere, ez dugu askotan, mendian ibiltzen jakin. Mendian, lasai-lasai ibili beharrekoa da; eta gu beti, presaka eta korrika ibili izan gara: gaurko marka bihar hobetu beharrean. Eta hori ez da mendian ibiltzea. Nire semeak ere afizio horixe du, gaur marka bat egin, eta bihar, berriz, aurretik egindako hura hobetzen ibiltzen da.

«Lagunartean, tonto-tontoan botatako ideia formaldu, eta XIV orduak egingo ditut»

OLATZ ETXEBERRIA » Komunikabideetako ekoizlea

Berastegi » Beterano diren mendizaleekin batera, irteeran izango dira orain gutxi mendiaz gozatzeko hasi direnak ere.

Mendizale askorentzat egun handia da, oso ongi prestatuak joango dira asko, gutxi eago besteak, baina egun polita igarotzeko esperantzarekin guztiak. Olatz Etxeberriarentzat (Berastegi, 1985) aurtengo ibilaldia izango da lehenengoa. Mendian ibiltzen hasi berria da, eta ikara handiz doa ibilaldira, baina beste askoren moduan, gehiagi sufritu gabe egun polita igarotzeko esperantzarekin.

Mendirako zaletasunik?

Lehenengo urteko irailean hasi nintzen mendian ibilalditxo batzuk egiten, eta orain artean, ahal dudan guztietan, mendirako bidea hartu dut. Mendira joateko tarterik handiena, asteburuetan izaten dut, eta mendian ibiltzen hasi nintzenetik,

astebururo saiatzen naiz mendi buelta egiten.

Zein ingurutan ibiltzen zara?

Hemen, Berastegi inguruan gehienbat. Hala ere, tarteka-tarteka, beste inguruetara ere mugitzen naiz; baina batik bat, dagoeneko hemengo inguruetan egina dudana ibilbideetan ibiltzen naiz.

Zer nahiago duzu, mendian bakarrik, ala konpainian?

Nahiago lagun baten konpainian. Orain ere, lagun talde txiki bat elkarrekin gara mendian ibiltzeko. Gehienetan mendi bueltak gure kaxa antolatzen baditugu ere, ibilaldietan ateratzen ere hasiak gara. Aurten Villabonako ibilaldia egin genuen lehenengo, eta Berastegikoa, ondoren.

Nondik-nora sortu zen XIV orduak egiteko ideia?

Tonto-tontoan hasi ginen lagun talde txiki bat XIV orduetako ibilaldia egin behar genuela esaten. Hasiaren, kontua ez genuen oso serio hartu, baina pixkana seriotasun gutxiko ideia hura, ideia formale-



A. OTERMIN

an bihurtu zen, eta Berastegiko ibilaldia egin genuenean, honi nonbait gustua hartu-eta, igandean, ibilaldian aterako gara.

Ibilaldiko zerk tentatzen zaitu?

Erronka berri moduan hartu dut. Ia gustua hartu diot mendian ibiltzeari, eta XIV orduak egitea desafio handia izango da niretzat. Bukatzera iritsiko ote naizen...

Nola doaz egun horretarako prestataketak?

Orain arte, ia astebururo joan naiz mendira; baina egia da Aste Santu ondorengo honetan, lasaieago ibili naizela.

Norekin egingo duzu ibilaldia?

Hiru laguneko taldea joango gara elkarrekin. Beste bi lagunak ere aurten hasi dira mendian, eta elka-

rrekin egin ditugu ere, orain arteko ibilaldiak.

Mendirako txorakorik politenak?

Berastegi inguruak zalantzarik gabe. Oraindik ez naiz mendian asko ibili, eta beste bazterrik ere ikusiko nuke. Nire burua mendirako gehiago prestatuz gero, Pirineo aldera joango nintzateke gustura.

Zer espero duzu XIV orduetako ibilaldian aurkitzea?

Egia esan, ikara handiarekin noa bertara. Hanketatik nahiko gaizki

Aralarko Adiskideek ateratako liburuan, ibilbidea prestatzeko informazio asko dago

ibiltzen naiz. Oso azkar ateratzen zazkit babak, eta ez dakit egun horretan nola izango naizen. Gainera, ibilbidea luzea da, eta horrek ere errespetu handia ematen dit.

Aholkurik eskatu edo jaso duzu?

Askorekin hitz egin dut, eta denetarik esan didate. Batzuk, ibilaldi gogorra dela, eta ez dudalabukaturiko. Beste batzuk, kontrakoak, asteburuetan mendian ibilita nahikoa izango dudala. Dena den, ahalik eta hobekien prestatzea da nire asmoa. Aralarko Adiskideak ateratako liburua bat irakurtzen ari naiz, XIV orduen ingurukoak da eta bertatik informazio asko jaso dut.